


Maria Vinuesa

# Ezusteko bisita



Intermón  
Oxfam

# Ezusteko bisita



Sortaren zuzendaritza: Raquel León

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Aholkularitza-batzordea: M<sup>a</sup> Angels Alié, Carme Batet, Mireia Clarevol, Anna Conangla, Montse López,  
Juan Manuel Matos, Laura Mendoza, Elena Millá, José Palos, Ferran Polo, Vanessa Quintana, Maria Rico

Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Azalaren eta barruko diseinua: Lluís Torres

1. argitaraldia: 2003 ko ekaina  
© Autoretza: Maria Vinuesa, Carles Gràcia

© Apaingarriak: Àngel Sauret  
© Intermon Oxfam  
Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona  
Tel. 93 482 07 00. Faxe 93 482 07 08. E-mail: info@IntermonOxfam.org

ISBN: 84-8452-201-6  
Lege-gordailua: B-26.243-2003

Errealizazioa: MC producció editorial / Pàgina 98  
Inprimaketa: EGS, Rosario, 2 (Barcelona)  
Espainian inprimatua

“Copyrigh-aren” titularren onarpenik gabe, liburu honen zati edo ale osoaren ugaritzea erabat debekatuta dago, edozein delarik erabiltzen den modua edo prozedura.

Klororik gabeko paperean inprimatua.



Rita, Maria eta Gabriel  
jolasean ari dira basoan egunero



Gaur ez dute mokadurik ekarri





Abentura  
baten atarian daude



Espazio-ontzi bat basoan?



Hiru adiskideek ideia  
apartak izaten dituzte





Lehenik,  
gozoki- edo gaileta-lantegia bisitatu dute



Gero,  
Pepita eta Manuelaren okindegia



Azkenik, supermerkatua



Adiskidetasunak ez du mugarik



Ogi, kruasan edo gailatarik egingo ote dute XP203an?







Bila itzazu hiru adiskideen izenak




C	R	G	I	X	I
M	M	A	R	I	A
Z	A	B	L	N	S
J	E	R	I	T	A
O	M	I	V	M	S
I	G	E	I	A	O
L	A	L	A	L	A

# Seinala itzazu beharrezko elikagaiak eta idatz itzazu zerrendan



**Garastalurreko  
generoa**

**Lehorreko  
laboreak**




**Marraz ezazu pertsonaia edo pertsona erreal bat, ezagutu nahiko zenukeena**

---

## Zein da nor?

---



Gaileta-lantegira joatea proposatu duenak  
prakak daramatza, poltsiko bakarrekoak

Gozo-dendara joatea proposatu duenak  
kirol-oinetakoak dauzka, lokarririk gabeak

Supermerkatura joate proposatu duenak  
motxila darama bizkarrean



# Idatz itzazu produktu honen osagarriak

---

Itsats ezazu hemen  
azala



- 
- 
- 
- 
- 
- 
-

## Gurinezko gailetak egiteko errezeta

---




# **Nagusitan, zer izan nahi duzu?**

## **Marraz ezazu**

---


# Osa ezazu pastela, osagarriak nahastuz

---



# Seinala ezazu espazio-ontziak XP203raino iristeko jarraitu behar duen galaxiarteko bidea

---






# Ezusteko bisita

Behin batean, baziren hiru lagun, Rita, Gabriel eta Maria izenekoak, eta oso hiri handian bizi zirenak.

Auzoan neska-mutil asko bizi ziren, eta, aisialdian, basoan edo basoaren inguruan ibiltzen ziren jolasean. Egunero gurutzatzen zuten basoa eskolara joateko, eta soroetan barrena pasatzen ziren, letxuga, tomate, azenario eta tipulen artean.



Ipuin hau egun batean hasten da, hiruretako inork mokadurik ez zeukanean eskolara jateko, eta, beraz, okindegira joan zirenean zerbait erosteko. Pepitaren okindegian, ogitartekoa, txokolatezko kruasana eta gaileta-paketea erosi zuten, eta betiko bidetik abiatu ziren eskolarantz, berriketan eta algaraka.

Basoan barrena zihoazela zarata arraroa entzun zuten, hara begira jarri eta lur eta zur geratu ziren han ikusitakoaz: basoaren erdian espazio-ontzi bat zegoen lur hartzen. Atea ireki eta estralurtar bat jaitsi zen, mantso-mantso. Altua zen, ile luzea zeukan eta jantzi luze bat zeraman soinean, lurrerainokoa.

Hiru adiskideek ezin zuten fitsik esan, estralurtarra hurbildu eta ez beldurtzeko esan zien ahots eztiz eta atsegin handiz, baketsuki zetorrela, alegia. Planeten Konfederakundearen mandatuz zetorren, gizakiek jaten zituzten jakiak aztertzeke asmoz.

Hitzik esan gabe, hiru adiskideek elkarri begiratu eta gauza bera bururatu zitzaizen: mokadua estralurtarrari eman, eta zitzu bizian joango ziren eskolara gero. Eta ez ziren ausartu atzera begiratzen, badaezpada ere.

Oso luzea egin zitzaizen egun hura, gelatik irteteko gogo biziz egon ziren, ez baitzekiten ametsetan ari ote ziren edota, egiatan, estralurtar batekin hizketan aritu ote ziren.

Iritsi zen irteteko garaia, eta korrika itzuli ziren goizean espazio-ontzia egon zen tokira.

Hantxe zegoen oraindik, eta estralurtarra ere bai. Ez zirudien haserre zegoenik basoaren erdian bakar-bakarrik utzi zutelako lehen; alderantziz, eman zizkioten jakiak oso gustura hartu zituen, eta zer ziren eta nola egiten ziren jakin nahi zuen.

Hiru adiskideak konturatu ziren, estralurtarra ez zebilela gezurretan, intentzio onekoa zela eta, hari laguntza ematea erabaki zuten. Orduz geroztik, adiskidetzat hartu zuten. PI7 izena zuen adiskide berriak.

Astirik galdu gabe, pentsatzen jarri ziren, txokolatezko gailetak, kruasanak eta ogitartekoak egiteko laguntza nola eman.

.....

Gabrielek pentsatu zuen osabari esango ziola, ea lan egiten zuen fabrika bisitatzetik zeukaten, han gailetak eta gozokiak egiten baitziren.

Ritak pentsatu zuen, Pepita okinak ogia eta txokolatezko kruasanak egiten irakatsiko ziela.

Mariak, berriz, supermerkatuara joateko gomendatu zien, han mota guztietako eta interes handiko produktuak zeudelako, batez ere ogitartekoak egiteko gaiak.

Gabrielek halako pertsonaia bitxiari fabrika erakusteko proposatu zionean, poz-pozik jarri zen osaba, eta denetariko azalpenak eman zizkion PI7ri. Behar ziren osagaiak aipatu zizkion: irina, azukrea, arrautzak, esnea... PI7-k galdetu zien nondik ateratzen zuten irina, eta Gabrielelek garitik zetorrela azaldu zion, harro asko; eta azukrea, erremolatxatik, eta... auskalo beste zenbait gauza azaldu zizkion! Produktuak kartoizko kutxatan nola sartzen ziren ere esplikatu zion Gabrielelek.



PI7-k dena idazten zuen bere makinatxoan: garia..., irina..., azukrea..., erremolatxa...

Pepita okinari ez zion batere graziarik egin halako tipoak bere okindegia bisitatzek, baina Ritak arrazoiak azaldu zizkionean, behartuta izan arren, onartu egin zuen. Manuel senarra, berriz, hunkituta zegoen, erabat: estralurtar bat bere okindegian! Okin guztien inbidia izango zen. Haren kruasanak galaxia guztietan ezagunak izango ziren! Txokolatez, kruasanez mintzatu ziren. Manuelek kakaoaren historia kontatu zien, Afrikatik zetorrela eta txokolatea kakaotik egiten zela; azaldu zien, kakaoa lantzea oso lan gogorra dela, eta lanean ibiltzen ziren nekazariak ez zutela askotan behar adina diru jasotzen lanagatik... eta ezin zituztela gauza asko erosi.

PI7-k ohartxoak hartzen jarraitu zuen: saldu..., erosi..., oso lan gogorra..., premiak...

Supermerkatuari egindako bisitaldia oso interesgarria izan zen, eta denetan luzeena ere bai. Estralurtarrak galdezka jardun zuen, eta dena idazten zuen bere makinatxoan. Harrituta zegoen han eros zitezkeen gauzez, baina gehien-gehien gustatu zitzaiona, produktuak apaletan zein ordenaturik zeuden ikustea izan zen. Hura jaki-pila, hura! Denetatik zegoen apaletan!

Ezin zuen, ordea, ulertu, zergatik ezin zituen produktuak hartu, erosi egin behar zituela, alegia, hau da, dirua ordaindu egin behar zuela produktuak hartzeko..., baina nahikoa dirurik ez baduzu? Eta kakaoa lantzen zutenei bezala, ez badizute behar beste ordaintzen?

Eta PI7 oharrak hartu eta hartu: dirua..., erosi..., premiak...

Supermerkatua bisitatu ondoren, bere lana bukatu zela esan zien estralurtarrak. Alde egin behar zuela, zalantza batzuk bazituen arren, joan egin behar zuela, agian inoiz beste behin itzultzeko, baina orain joan egin behar zuela. Gure planetara egindako bidaiak probetxuzkoa izan zela, baina XP203ra itzuli behar zuela, bere planetara, Planeten Konfederakundekoei ikasitakoa azaltzeko.

Ordainetan "pastel izartsua" eman zien, XP203ko produktu jatorra, hain zuzen ere. Hura ikustean, denak pentsatu zuten urtebetetze-eguneko pastel bat zela, izarrez betea, ordea.

Espazio-ontzia aireratzen ikusten zutela, hiru adiskideek pentsatu zuten, agian, egunen batean, gizakia kanpoko espaziorantz abiatzen denean, ogitartekoak, kruasanak eta txokolatezko gailetak egiten dituzten planetara iritsiko dela. Zein ederra, ez da?